

**GIZARTE BAZTERKETA ETA EKONOMI LARRITASUN EGOEREI AURRE EGITEKO
NORBANAKO ETA FAMILIENTZAKO UDAL DIRULAGUNTZAK
2025. URTEA
OINARRIAK**

1.- LAGUNTZEN HELBURUA:

Oiartzungo biztanleen giza bazterketa arriskuak edo bazterketa eta larritasun ekonomiko egoerak saihestea dituzte helburu laguntza hauek.

2.- PRINTZPIO NAGUSIAK

- Beti gizarteratze prozesu eta esku hartze egitasmo bati loturik egongo diren laguntzak izango dira eta gizarteratze hitzarmen edo esku hartze egitasmoa baten bitartez konpromisoak zehaztuko dira.
- Izaera subsidiarioa dute eta hala dagokionean, indarrean dagoen legerian aurreikusita dauden, eta onuradunari edota bizikidetzaren unitateko edozein kideri dagokien arlo ekonomikoko gizarte baliabide eta prestazioen osagarri dira.
- Laguntza puntualak edo epe bati lotutakoak dira (maileguen kasuan gehienez bost urteko iraupena izango dute)
- Lehentasuna izango dute babesgabe gera daitezkeen egoerak (adin txikikoak, mendekotasun egoerak, genero indarkeriaren biktimak, etxerik gabekoak, familia monoparentalak, etab...)
- Beste ezinak dira eta, beraz, ezin izango dira betebeharren berme gisa eskaini; ez da lagatzerik egongo, ez osoki, ez partzialki; eta ez da konpentsatzerik ez deskontatzerik egongo, bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko izan ezik. Ez da atxikitzerik edo bahitzerik izango, ezartzekoa den Estatuko lege orokorrean aurreikusitako muga izan ezik.
- Laguntza hauek emateko, horretarako den kreditua egon behar du esleitua udal aurrekontuetan.
- Laguntzek behar hauei erantzuteko izango dira:
 - a) Ohiko etxebizitza edo bizitokia erabiltzeko eta mantentzeko beharrezko gastuak, hala nola (alokairuaren gastuak, gizarte-larrialdiko egoera izan aurretik, ohiko etxebizitza edo bizilekua eskuratzeko eskatutako maileguen interes eta amortizazioek eragindako gastuak). Beste mantentze-gastuak, etxebizitza eskuratzeko lehenengo gastuak (fidantza-gastuak, agentzia gastuak), logela eskuratzeko lehenengo gastuak (fidantza gastuak eta lehenengo hileko ordainketa)
 - b) Ohiko etxebizitzan edo bizilekuan bizi ahal izateko eta bertan oinarritzeko osagaiak edukitzeko beharrezko gastuak: altzarietarako gastuak, linea zuriko etxetresna ,

etxebizitza egokitzeko edo konpontzeko gastuak, etxebizitzan oinarritzko instalazioak jartzeko gastuak.

- c) Lehen mailako beharretarako gastuak: elikadura, jantzia, garraioa eta gainerako sistema publikoek bere gain hartzen ez dituzten beharrak, hezkuntza, prestakuntza, gizarteratzeko prozesu eta osasun-zaintzaren arlokoak.
- d) a) eta b) ataletako kontzeptuek eragindako zorpetze-gastuak edo oinarritzko beste beharren batek eragindako zorpetze-gastuak.
- e) Mendeko pertsonen (adin txikikoak, hirugarren adinekoak edo ezintasuna dutenak) zaintzak eragiten dituen gastuak, babesgabezia egoerak saihesteko.
- f) Beste diru laguntzen ebazpenak bideratzen diren bitarteko aurrerapenak, beti itzulpen konpromiso bati lotuak badaude.

3.-DIRU ATALA ETA 2024. URTERAKO AURREIKUSITAKO AURREKONTUA:

1 0341 480 231 00 02 2025 Familiei laguntzak 115.000€

4.-ONURADUNAK: BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

BALDINTZAK:

- a) Adinez nagusia edo adin txikiko emantzipatua izatea.
- b) Oñartzungo udalerrian erroldatua egotea.
- c) Oinarritzko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea, hau da kide kopuruaren arabera hileko sarrerak ezin izango dute muga hauek gainditu.

KIDE KOPURUA	KOPURUA	MONOPARENTALAK	KOPURUA
1	1.261,02€		
2	1.681,36€	2	1.723,39€
3 EDO GEHIAGO	1.933,57€	3 EDO GEHIAGO	1.975,60€

(*) Mugako egoeretan (gaixotasun fisiko eta psikikoa, adin txikikoen babesaren arriskuan dagoenean, genero indarkeriaren biktimak edo gizarte bazterketa egoera larrietan) baremo hau egoeraren baitan egokitu da, beti ere aldeztu aurretik gizarte zerbitzuen arazoibidezko txostena eginda.

- d) Gizarteratze hitzarmena sinatua izatea eta /edo esku hartze egitasmoa.
- e) Ondarea zenbatzean, jabetza- edo gozamen-titulua duten ondasun higigarri eta higiezin guztiak sartuko dira, bai eta horien erabilera eta gozamina ahalbidetzen duen beste edozein ondasun ere.

Ez dira ondare gisa hartzen ohiko bizileku den etxebizitza edo bizitokia eta lan-jarduerarako

erabilitako higiezinak, salbu eta jabetzako etxebizitzak aparteko balioa badu. Bizikidetzaren unitatearen gehieneko ondarea ezin da izan bizikidetzaren unitateari urtebetez legokiokeen bermatutako gehieneko **errentaren zenbatekoa halako bost edo handiagoa**

BAIMENDUTAKO GEHIENAKO ONDAREA	
KIDE KOPURUA	KOPURUA
1	50.440,80€
2	67.254,60€
3 EDO GEHIAGO	77.343,00€

Ondarea baloratzekoan ibilgailu motordunen kasuan (osorik hartuta), ez dira kontutan izango jarraian adierazten diren zenbatekoak (mugak):

1. 6.000 € arte, oro har.
2. 20.000€ arte, desgaituentzat egokitutako ibilgailuen kasuan.
3. 20.000€ arte, lanbide jarduerari lotutako kamioien kasuan.
4. 6.000€ arte, lanbide jarduerari lotutako furgonetan kasuan

Merkatuko prezioa hartuko da kontuan, eta salbuetsia dauden zenbatekotik gorakoa bakarrik konputatuko da.

BETEBEHARRAK:

1. 38/2003 legearen 13. artikularen baitan:
 - 2.e) Zerga obligazioak eta gizarte Segurantzaren betebeharra egunean izatea.
 - 2.g) Diru laguntzak itzultzeko betebeharra egunean izatea.
2. Etxebide programan eskaera bideratua izana, alokairuan daudenen kasuan eta beti ere legeak ipinitako baldintzak betetzen diren kasuetan.
3. Jasotako diru-laguntzak eskatutako helburuetarako erabili behar dira.
4. Diru-laguntzak eskuratzeko bete beharreko baldintzei buruzko aldaketan berri eman
5. Esku hartzeko plana eta /edo gizarteratze hitzarmena gizarte langilearekin batera adostea.
6. Edozein aldaketa esanguratsu jakinarazi beharko dio Gizarte Zerbitzuari (lanaren lorpena, egoera ekonomikoaren aldaketa, bizileku aldaketa...)
7. Hiru hilero egoeraren jarraipena egin beharko da Gizarte zerbitzuekin batera
8. Bidegabeki jasotako diru-laguntzak edota oker jasotako kopuruak itzultzea.
9. Jasotako laguntzak modu honetan justifikatu beharko dira :

-Laguntzaren onuradunak ezinbestean aurkeztu beharko ditu egindako gastuen fakturak edo/eta jatorrizko ziurtagiriak (urte bukaeran).

-Alokairu-gastuak edota maileguen interesen eta amortizazioaren ondoriozko gastuak ordaintzeko kasuetan, onuradunak sei hilean behin ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu gastuen ziurtagiriak, ordainagiri pribatuak, fakturak nahiz banku-ordainketako ziurtagiriak Gizarte Zerbitzu sailean aurkeztu behar ditu. Jatorrizko ziurtagiriak eta fakturak izango dira.

-Gastuak egin izanaren frogagiriekin pertsona fisiko edo juridiko igorlearen identifikazioko eta lokalizazioko oinarrizko datuak, haren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo nortasun-agiri nazionala (NAN), gastu-kontzeptua eta horiek dagokien zenbatekoa jaso beharko ditu.

5.-PROZEDURA

Hitzordua eskatu beharko da, zerbitzu hau tramitatzen hasteko baldintzak betetzen ote diren baloratzeko.

Baldintzak betetze direla egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioari dagokionez, Oiartzungo Udalak administrazioaren eskura dauden dokumentuak zuzenean kontsultatuko ditu. Hala ere interesdunak, Oiartzungo Udalak datu horiek zuzenean jasotzearen aurka dagoela adierazi dezake eta kasu horretan ezinbestekoa izango da egiaztapenak aurkeztea.

Eskaera eta dokumentazioa Oiartzungo gizarte zerbitzuetan aurkeztuko da eskaera, 39/2015 Legean ezarritakoa betez. Eskaerarekin batera, hala badagokio, dokumentu hauek aurkeztu behar dira, onuradunaren ezaugarriak egiaztatze aldera:

1. Familia-unitateko kide guztien dirusarreraren egiaztapenak.
2. Eskatzailearen ondasun higigarri eta higieztatuak buruzko egiaztapenak, eta beharrezko denean, familia-unitateko kide guztienak.
3. Diru-laguntza zein gastuetarako eskatzen den; gastu horretarako diren fakturak edo aurrekontuak.
4. Beharra egiaztatzeko baliagarria den beste edozein dokumentu eta/edo gizarte langileak beharra egiaztatzeko eskatzen duen dokumentua.

Espedientearen izapidetzea

1. Hitzordua eskatu, dokumentazioa jaso eta egiaztatu.
2. Eskaera erregistratu
3. Eskaera baloratu ondoren gizarte langileak txostena proposamen teknikoarekin egingo du.
4. Ebazpena Gizarte Zerbitzuko zinegotziak sinatuko du.
5. Jakinarazpena helarazi.

6. Ordainketa egin
7. Emandako dirulaguntza zuritu.

6.- DIRU-LAGUNTZAK ORDAINTZEA, ZURITZEA, BERTAN BEHERA UZTEA ETA ITZULTZEA

Ordaintzea: Diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritakoa betez egingo da ordainketa. Interesdunak alde zuzenetik baimena eman ondoren, eta kasuaren arduradunak adostasuna eman ondoren, ordainketa zuzenean ordain dakieke diru-laguntza xede duen zerbitzu emaileei, pertsona nahiz entitateei..

Zuribidea: Diru-laguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak eta helburuak betetzen ari direla zuritu beharra dago, eta hala jasoko da diru laguntza emateko ebazpenean. Era berean jasoko dira zuriak egiteko epeak zeintzuk izango diren.

Diru-laguntza bertan behera uztea: Diru-laguntza aldi-aldi hainbat ordainketatan egiten denean, aurretik onuradunari entzunaldia eskaini ondoren, berraztertzeak aukera izango da, eta ordaintzeko gelditzen diren kopuruen batura gutxitu ahal izango da, baldin eta azken ordainketa egin aurretik inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

- 1.- Esku hartzeko plana sinatu duen interesduna hiltzea.
- 2.- Onuradunak diru-laguntzaren zenbateko ez ordainduari uko egitea.
- 3.- Diru-laguntza emateko eskatzen diren baldintzetako bat ez betetzea.
- 4.- Esku hartzeko plana edo beste antzekoren bat ez betetzea.
- 5.- Onuradunak berak edo haren bizikidetzak-unitateko kideek jasotzekoak dituzten ekonomia-erakunde eskubideak – jakien eskubideak barne– ez baliaraztea.
- 6.-Iruzur egitea
- 7.- Onartutako diru-laguntza, adostutako helburuak betetzeko ez erabiltzea.

Diru-laguntza berraztertzeak espedienteari ekin ondoren, ordainketak hilabete batez etengo dira, kasuaren arduradunak hala proposatuta eta ordainketa eteteko arrazoiak zuzentzen ez diren bitartean ez da ordainketarik egingo. 12 hilabete igaro eta egoera arrazoitzen ez bada, iraungi egingo da prestazioa jasotzeko eskubidea.

Iruzur kasuetan laguntza eskaera bertan behera utziko da eta ezin izango da laguntza bi urteko epean eskatu.

Egoera larri baten aurrean epe hau berrikus daiteke.

Itzultzea:

- Udalak honako hau jakinaraziko dio onuradunari: prozedura horri hasiera eman zaiola, zein arrazoietan oinarritzen den, eta zein ondorio ekonomiko izan ditzakeen, baita ebazpena hartzeko eta jakinarazteko epea eta administrazio-isiltasunak eragin ditzakeen ondorioak ere. Interesdunek, hilabeteko gehieneko epean, egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ahal dituzte.

- Alegazio horiek jaso ondoren, edo horretarako epea amaitu eta oraindik ez bada alegaziorik egin, Udalaren organo eskudunak hilabete bat izango du jaso behar ez ziren prestaziorik jaso ote den edota ez dagozkion neurrian jaso ote diren erabakitzeak ebazpenaren bitartez. Ebazpen horrek arrazoituta egon beharko du.

- Jaso behar ez zen prestazioren batekin edo ez dagokion neurrian jasotako prestazioren batekin lotutako egoera dagoela ebazten bada, aurreko paragrafoan aurreikusitako ebazpenean dagozkion kopuruak interesik gabe itzuli behar direla jasoko da, interesdunak betebeharrak hori gauzatzeko izango duen gehieneko epea zehaztuz, baita egin beharreko hileko itzulketen kopurua eta zenbatekoa ere.

Aipatutako betebeharra betetzen ez bada, premiamendu prozedurari ekingo zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 31ko 212/1998 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

- Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, Udalak indarreko prestazioetatik zati bat ofizioz konpentsatzeko edo kentzeko aukera izango du, horiek onuradunaren bizikidetzak unitateko edozein kideri dagozkiola ere. Konpentsazio edo kentzea hori Udalak egin beharko du, epeak, kopurua eta zenbatekoa ezarritik.

- Dirua itzultzeko epea.

Itzultzeko prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedurari hasiera ematen zaionetik zenbatzen hasita. Epe horretan inolako esanbidezko ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, prozedura iraungiko da, eta emandako ebazpenak jardunak artxibatzeko aginduko du. Prozedura pertsona interesdunaren erruz geldiarazten den kasuetan, ebazpena emateko eta jakinarazteko epea ere eten egingo da.

7.-KOPURUAK

KONTZEPTUAK	GEHIENGO KOPURUAK
ALOKAIRUA	3.600€ / urtean
MAILEGUA	3.600€ / urtean
ALOKAIRU SARRERA GASTUAK	3.600€ / urtean
GELA SARRERA GASTUAK	1.000€ / urtean
ALTZARIAK ETA LINEA TXURIKO ETXETRESNAK	1.850€/urtean
ENERGIA GASTUAK	1.920€/urtean
ETXEBIZITZA KONPONDU ETA EGOKITZEKO	1.850€/ urtean
LEHAN MAILAKO BEHARRAK	DBEren kopuruak kideen baitan
ZORPETZE GASTUAK	Kontzeptu bakoitzari dagokion muga kontutan izango da.
ZAINTZA GASTUAK	3.000€ / urtean
AURRERAPENAK	DBEren kopuruak kideen baitan

Oñartzunen, 2024ko abenduaren 9a